

## AKTA

**Txapelketaren izena:** "XI<sup>o</sup> BIDASOA TXINGUDI SQUASH SARIA 2024"

**Kategoria:** Euskal Liga txapelketa (federatuak).

**Antolatzailea:** LUR-ALAI SQUASH KLUBA - LASK

**Kokapena:** ARTALEKU kiroldegia, IRUN

**Data:** 2024ko maiatzaren 3, 4 eta 5

**Partaidetza:** 28 gizonetzko heldu + 8 emakumezko + 12 junior

**Epaile nagusia:** Gorka Arretxe

## GARAPENA

Txapelketaren lehen partidak ostiralean, arratsaldeko 18:00etan hasten dira, taula nagusirako aurre sailkapen partiduekin. Lehen erronda eta gainontzeko patudu guztiak 3 jokotariko onenera jokatu dira, jokalaria guztiei, txapelketa guztian zehar, 4 partidu jokatzeko aukera emateko, taula nagusikoak izan ezik, hauek 5 jokoetara jokatu behar bait direlako. Horrela, postu guztiak jokatuko lirateke.

Taula nagusiko bigarren errondara, espero zen bezalaxe, sailkapeneko lehen 16 jokalariek gaintzen dituzte, sorpresarik gabe. Aurre sailkapen partiduez geroztik, taula nagusiko 16 jokalaria final zortzirenetan izango dira berez eta norgehiagokak pixkanaka geroz eta parekatuagoak bilakatzen hasten dira. Oraingoan, aipatzekoa da Gorka Arretxe (Euskal Rankineko 20.a), Aitor Yanguas Sestaotarra (ER-eko 5.) eta lehen aldiz menedatu zuela 3/1eko emaitzarekin. Iñigo Iriarte nafarrak ere gauza bera egin zuen Txem Minguez Benediktako bizkaitarrarekin 3/0eko emaitzarekin. Gainontzeko partidutan faboritoak final lardenetara pasa ziren.

Finala 1/8enen jarraian, aurre sailkapeneko lehen partidua galdu zuten artean, taula berri bat osatzen da. Honela ostiraleko jardunaldiaren amaierara iritsi ziren, denek bi partidu aurreratu zituztelarik.

Larunbatean, Gizonezkoen kontsolazio taulaz gain, Emakumezkoen taula jokatu ziren. Partidak ia guztiak 9:00etatik 14:00ak bitartean jokatzeko aukera izan zuten, bazkatzeko geldiuenean ostean, 18:00ak inguruak, finaleko postuen partidak jokatu ahal izateko.

Emakumezkoen taulan, Maite Estournes Baionako klubean jokatu zuten Lur-Alaiko fitxaje berria, hendaiarra, izan zen garaile. Orain arte, Euskadin bere mailako areriorik ez zuten Irune Peinado (16 urteko Sestaotarra) Euskadiko Txapelduna, partidu estu eta

ikusgarri batean mendean hartu zuen Hendaiarrak 3/2ko emaitzarekin. 3. eta 4. postuetan, Benedikta Squash klub bizkaitarreko Nagore Cirion eta Lur-Alaiko Ione Iturria irundarrak topatu ziten, Ione 3/0 gailendu zelarik. 8 neska gutxi izan arren, squash mailan 8ko taula bat osatzea ez da oso ohikoa eta beraz pozgarria izan da kasu honetan. Pixkanaka, emakumeak squashean eta txapelketetan parte hartzen hasiak diren seinale oparoa isladatzen du.

Gizonezkoen finalerdietan, Xabi Azaldegi Lur-Alaiko jokalaria hernaniarra, Final laurdenetan Gorka Arretxe garaitu zuen Iñigo Iriarte Oberenako (Iruña) jokalaria sorpresarekin topatu zen, aurrekoarekin 3/2 amaitu zen partidu gogor baten ostean. Asko kostata, oraingoan Lur-Alaiko jokalaria, aurrera jarraitu ahal izan zuen (Xabi alegia) nafarrari 3/2 irabazi ostean, kostata ere. Bigarren finaledian Joel Eransus (19 urteko Euskadiko Txapelduna) eta Adrian Beloki, biak Amaya klubeko jokalaria gurutzatu ziren, bigarren honen zorte txarraren ondoren, lesio bat izan eta partidutik erretiratu behar izan bait zuen, Joel, esfortzurik egingabe, finalera zuzenduz. Finalen beraz, nekatuta zegoen Xabi Azaldegi eta indartsu eta osorik zegoen Joel Eransus neurtu ziren, azken honen sasoia eta dominazioa erabatekoa zelarik. Ez zion inolako aukerarik eman eta 3/0 irabazi zion naparrak, Hernaniarrari.

Igandean 10:00etan junior kategoriako txapelketa hasi zen. 12 jokalarietan, Iruña, Gasteiz, Irun eta Burgoseko jokalaririk onenak bertan zeudelarik. Auresailkapen partiduak faboritoak eta klubeko hasiberriak neurtu zituzten, "kanpokoak", bertakoei erraz gaindituz, oso maila tarte handia bait dago. Irungo ordezkari bakarra. Final laurdenetaraino, Lur-alaiako ordezkari bakarra iritsi zen, Unax Mariezkurrena Txingudi Ikastolako jokalaria irundarra, hain zuzen, Marcos Orive-n (Burgos) aurka irabazi ostean, eta finalerdietan Dani Khayat naparraren aurka galdu aurretik. Honen ondoren, 3. eta 4. postua jokoan jarri zuen Miguel Orive (Marcosen anai handia, hain zuzen) aurka, 4.postuarekin bukatuz. Finalean, egungo Euskadiko txapelduna (Espainiako 3.) eta nafarroako txapeldunak, Itzen Reguero (Gasteiztarra) eta Dani Khayat (Iruindarra) hurrenez-hurren partidu parekatua jokatu zuten 5 setak jokatzerira iritsi ziren arte, azkenik, Itzel gailendu zelarik. Bertan ikusten zeuden familia eta gainontzeko jokalaria, txunditurik utzi zituzten goi mailako bi jokalaria hauen ikuskizunak. Helduen mailara iritsi daiteke jokoa azaldu zuten eta Euskal Herriko squasharen etorkizunari, izugarrizko bultzada eman diezaioketen jokalaria ikusi eta sumatu izan genituen.

Finalaren ostean, klubeko laguntzaileek eskeintzen dituzten hainbat produktu eta opari banatu eta eskerrak eman zituzten bertaratu eta squasha bultzatzen laguntzen duten pertsona, enpresa eta eragile guztiei.

Txapelketa borobila izan zela goraiatu zuten jokalaria eta familiek.

## SAILKAPEN OROKORRA

### TAULA OROKORRA:

1. Joel Eransus - CD AMAYA (Iruña)
2. Xabi Azaldegui - LASK
3. Iñigo Iriarte - OBERENA (Iruña)
4. Adrian Beloki - CD AMAYA
5. Sergio Salgado - Eibar K.D
6. Mikel Elizalde - AD SAN JUAN (Iruña)
7. Iñaki Garcia - LASK
8. Gorka Arretxe - LASK
9. Unax Merino - FreeSquash (Gasteiz)
10. Álvaro Garisoain - OBERENA
11. Txema Minguez - BENEDIKTA (Sestao)
12. Juanma Beloki - CD AMAYA
13. Aitor Yanguas - BENEDIKTA
14. Josu Gallastegi - HAMAIKANICK
15. Jon Losada - Eibar K.D
16. Mikel Sanz - BENEDIKTA
17. Emilio Cocinero - BENEDIKTA
18. Julen Garcia - BENEDIKTA
19. Juanan Marugan - LASK
20. Markel Reguero - FreeSquash
21. Joxelu Mariezkurrena - LASK
22. Irune Peinado - BENEDIKTA
23. Hodei Carrillo - Zarautz KE
24. Iñaki Gomez - LASK
25. Gabriel Iriarte - OBERENA
26. Oscar Ferreiro - Eibar K.D
27. Telmo Etxeberria - LASK
28. Raid Khayat - OBERENA
29. Mariana Olin - Univ. Navarra

### EMAKUMEZKOEN TAULA

1. Maite Estournes - LASK
2. Irune Peinado - BENEDIKTA
3. Ione Iturria - LASK
4. Nagore Cirión - BENEDIKTA
5. Cristina Santamaria - BENEDIKTA
6. Bea Tejeda - LASK
7. Mariana Olin - Univ. Navarra
8. Sara Alba - LASK

### JUNIORREN TAULA

1. Itzel Reguero - Freesquash GASTEIZ
2. Dani Khayat - OBERENA
3. Miguel Orive - EL CID BURGOS
4. Unax Mariezkurrena - LASK
5. Abel Elizalde - AD SAN JUAN (Iruña)
6. Marcos Orive - EL CID BURGOS
7. Alex Khayat - OBERENA
8. Iker Fernande - LASK
9. Ander Genua - LASK
10. Oier Arretxe - LASK
11. Ibon Santiago - LASK
12. Ibai Gonzalez - LASK

Sari banaketan, partehartzaile eta klub antolatzailearen laguntzaileei eskerrak emanez amaitu zen.

